

## KONTROL MOZIOA

### **ALTZA- GALTZARABORDA TREN-ADARRA DELA ETA**

Axier Jaka Goikoetxea EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du, Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2016eko irailaren 19ean Gune Publikoaren Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

## **JUSTIFIKAZIOA**

Euskotrenen Altzako geltoki berria, zorionez, irailaren 12an hasi zen martxan; zailtasunak zailtasun zerbitzuetan, Eusko Treneko langileak greban baitaude. Dena den, ez da nahi genukeen adinako berri ona izango, milaka altzatarrentzat, “cul de sac” geltoki gisa abian jarri baita. Oraingoz, Altza- Galtzaraborda burdinbide-zatiaren obra egitea alde batera utzi baitu Eusko Jaurlaritzak. Zer esanik ez, bizilagun ditugun Pasaia eta Errenteriako herritarrentzat euren etxeen artetik igarotzen den burdinbide-zubibide batekin elkar-bizi behar baitute egunez egun; horrek dakartzan eragozpen eta kalteekin, zarata, bibrazio, oztopo arkitektoniko, segurtasun eta, oro har, bizi-kalitatearen ikuspuntutik.

Izan ere, 2013. urtetik, 70 milioi euro inguruko aurrekontua duen obra-proiektu hau idatzita dagoen arren, gaur egun ez du Eusko Jaurlaritzaren finantziazio-konpromisorik. Are gehiago, azkenean Eusko Jaurlaritzak 200 milioi euro Donostia erdiguneko metro-pasantea egiteko erabiltzen baditu, proiektu hau urtetarako hipotekatuta geratuko da. Arrisku hau ikusita, ezinbestekoa da aldarrikatzea altzatarren eta, oro har, Donostialde osoko herritarren ikuspuntutik, Altza-Galtzaraborda burdinbide-zati berriak premia eta lehenetasun handiagoa duela erdiguneko metro-igarobidearekin alderatuta. Logika hutsa da eta arrazoiak bistakoak dira:

- Arrazoi geometrikoak: cul-de-sac izan daitekeena saihestea; kontuan izanda, gainera, erdiguneko igarobidearen kasuan ez bezala, inongo desbideratzerik gabe lor daitekeela. Alegia, altzatarrek ekialderantz joan nahi badute, Herrerako geltokian ontzi-aldaketa egitera behartzea ekidingo genuke.
- Metrizarazioa: Altzako geltoki berriarekin, altzatarrek soilik 15 minuturoko zerbitzu-maiztasunak izango dituzte (baliteke agian 30 minutukoak ere izatea zenbait urtaro edo ordu-tartetan). Burdinbide-adar berria eraikitzen bada, ordea, Altzako geltokia trenbide bikoitzeko igarobide bilakatuko da eta 10 minutu azpiko metro maiztasunak izatea ahalbidetuko du, edo, gutxienez, egungo Herrerako geltokiarenak.

- Finantzazio arazoak: kostua metro-pasantearena baino askoz txikiagoa litzateke; 70 milioi euro 200 milioi euroren alboan.
- Bizitza-kalitatea: Pasai Antxo-Errenteriako istripuak izan dituen bide-zati bat da, eta lehen mailako arkitektura-oztopoa ere bai; hirigunean zarata, iluntasuna eta segurtasun-falta sortzen duena.
- Irisgarritasun globala: EuskoTrenen sarea hegoalderantz mugituta eta Renferen geltokitik urrunduta, zabaldu egingo da garraiobide publikoek, osotasunean, egoki artatutako hiri eremua (GPBIM Indizea).

Iraileko batzordeetan, proiektu honen garrantziaz eta hura eskatzeko kudeaketez alkateari galdetuta, erantzun zitzaigun, batetik, ez dela gestio zehatzik egin Eusko Trenbide Sareak eta Eusko Jaurlaritzako arduradunen aurrean azpiegitura hau eraikitzea eskatzeko eta, bestetik, alkateak defendatu zuen erdiguneko metro-pasanteak lehentasun handiagoa duela eta lehenik metro-pasantea eraikitzea izango dela alkateak erakunde hauen aurrean defendatuko duen proiektua. Hori dela eta, ulertu dugu ez Alkateak ez Udal-gobernuak, Donostialdeako Metroaren erakunde arteko batzordean, ez duela defendatu Herrera-Altza-Pasai Antxo- Galtzaraborda adar berriaren premiazko beharrezana.

Horiek horrela, hauxe da behean sinatzen duen zinegotziak aurkeztutako

### **KONTROL MOZIOA:**

1.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen die alkateari eta Udal Gobernuari, Donostialdeko Metroaren erakunde arteko batzordean, Altza- Galtzaraborda proiektuaren eraikuntza lehentasunezko zatitza defenda dezatela eta, zentzu horretan, eska diezaietela Eusko Jaurlaritzari eta Eusko Trenbide Sareak-i proiektu honetarako hainbat urtetarako aurrekontua ezartzea eta obra-lizitaziorako oinarrien idazketari ekitea.

Donostian, 2016ko irailaren 23a

Axier Jaka Goikoetxea  
**EH Bildu udal taldeko zinegotzia**

## MOCIÓN DE CONTROL

### **SOBRE EL RAMAL FERROVIARIO ALTZA-GALTZARABORDA**

Axier Jaka Goikoetxea, concejal del grupo municipal EH BILDU de Donostia, basándose en el artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta esta moción para su tratamiento por el Pleno de la ciudad. La moción es consecuencia de la interpelación sustanciada en la Comisión de Espacios Públicos el pasado 19 de septiembre.

### **JUSTIFICACIÓN**

Felizmente, la nueva estación de Euskotren de Altza empieza a ofrecer servicio; aún con ciertas dificultades, ya que las y los trabajadores de Euskotren se encuentran en huelga. No es, sin embargo, una noticia tan buena como quisieramos, ya que la estación ha entrado en funcionamiento siendo un “cul de sac” (fondo de saco). El Gobierno Vasco ha dejado de lado, de momento, la construcción del ramal Altza-Galtzaraborda de la red ferroviaria, lo cual supone una mala noticia para los y las altzataras, y también para la población de los municipios vecinos de Pasaia y Errenteria, que tienen que convivir con el viaducto ferroviario que pasa por entre sus casas, con las consecuentes molestias y problemas de ruido, vibraciones, seguridad y calidad de vida, en general, que les produce este importante obstáculo arquitectónico.

Y es que, a pesar de que el proyecto de obra de 70 millones de euros está ya redactado desde 2013, el Gobierno Vasco no ha adoptado ningún compromiso de financiación. Es más: si el Gobierno Vasco destina 200 millones de euros a la construcción de la pasante de metro soterrada por el centro de la ciudad, dicho proyecto quedará hipotecado para muchos años. Ante esa amenaza, es imprescindible reivindicar, desde el punto de vista de la ciudadanía de Altza y del conjunto de Donostialdea, que el ramal Altza-Galtzaraborda presenta una necesidad y una prioridad mayor que la pasante soterrada por el centro de la ciudad. Es una cuestión de sentido común y cuyas razones son evidentes:

- Razones geométricas: evitar el fondo de saco; teniendo en cuenta, además, que, a diferencia de la pasante por el centro de la ciudad, no se necesita ningún desvío en este caso. Evitaríamos, de esa manera, que los y las altzataras tuvieron que realizar transbordo en Herrera para dirigirse al este del territorio.
- Metrización: con la nueva estación, las y los altzataras dispondrán de frecuencias de 15 minutos (que también podrían ser de 30 minutos en determinados periodos o tramos horarios). Con la construcción de este ramal, en cambio, la estación de Altza se convertiría en una pasante de doble vía (desdoblada) y podría contar con frecuencias de metro, inferiores a 10 min, o por lo menos iguales a las que en la actualidad existen en Herrera.

- Razones financieras: el coste es mucho menor que el de la pasante de metro; 70 millones frente a 200 millones.
- Calidad de vida: el tramo Pasai Antxo-Errenteria es un obstáculo arquitectónico de primer orden, en el que se han producido accidentes, y que genera problemas de ruido, iluminación y falta de seguridad en los núcleos urbanos.
- Accesibilidad global: desplazando la red de EuskoTren hacia el sur, y alejándola de la estación de Renfe, ampliamos el espacio urbano asistido adecuadamente por la red de transporte público (índice NATP).

En las comisiones celebradas en septiembre, nuestro grupo interpeló al alcalde sobre la importancia de este proyecto y sobre las gestiones realizadas para su construcción. El alcalde nos respondió que no se había hecho ningún tipo de gestión ante los responsables del Gobierno Vasco y Eusko Trenbide Sareak y consideró de mayor prioridad construir la pasante de metro por el centro de Donostia; Eneko Goia, de hecho, afirmó que será precisamente dicha pasante el proyecto cuya construcción defenderá ante las instituciones. Por tanto, entendemos que en la comisión interinstitucional sobre el Metro de Donostialdea, ni Alcalde ni el equipo de Gobierno ha defendido la urgente necesidad de la nuevo ramal Herrera- Altza- Pasai Antxo- Galtzaraborda.

Es por ello que el concejal abajo firmante presenta la siguiente

### **MOCIÓN DE CONTROL:**

1.- El Pleno de Donostia insta al alcalde y al Gobierno Municipal de la ciudad a defender con prioridad el proyecto ferroviario Altza-Galtzaraborda en la Comisión Interinstitucional del Metro de Donostialdea y, en ese sentido, a demandar al Gobierno Vasco y a Eusko Trenbide Sareak que establezca el presupuesto pluri-anual para dicho proyecto y que inicie la redacción de las bases de licitación de obra.

Donostia, 23 de septiembre de 2016

Axier Jaka Goikoetxea  
**EH Bildu udal taldeko zinegotzia**